



INT-RI-2023-0299
CB/egm

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ERREPIDEETAKO ZARATA-MAPEI BURUZ
UDALEK EGINDAKO GOGOETEI BURUZKO TXOSTENA. 4. FASEA (1-ES-
513/2021)**

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua betez, eguneko batez besteko intentsitatea 6.000 ibilgailutik gorakoa duten Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideen zarata-mapak egin dira.

213/2012 Dekretuaren 12. artikulua zarata-mapak onartzeko prozedurari buruz dioenaren arabera, martxoaren 8an zarata-mapak bidali zitzaizkien udal interesdunei, 30 egun balioduneko epean txostena egin zezaten, egokitzen jotzen zituzten oharrak jasota, jendaurreko informazioaren izapidea egin aurretik.

Epe hori igarota, honako ohar hauek jaso dira:

1. Azpeitiko Udala:

Kiroldegia eta udal-igerilekuak zaratarekiko sentikor diren eraikin gisa sartzeko eskatu du.

Erreferentziako araudiaren arabera, zaratarekiko sentikor diren eraikintzat hartzen dira 213/2012 Dekretuan jasotako A eta E eremu akustikoekin pareka daitezkeen bizitegi, osasun, hezkuntza eta kultura eraikinak. Kiroldegiak eta igerilekuak ez datoz bat definizio horrekin, eta, beraz, ez dira sartu zarata-mapetan zaratarekiko sentikor diren eraikin gisa.

Beraz, ohar hori ezestea proposatzen da.

2. Errenteriako Udala

Lehenengo oharra:

Babes akustiko bereziko eremutzat deklaraturako udalerriko eremu guztietan, leihodun fatxaden altuera guztietan kaltetutako biztanleria aztertzeke eskatu du, zaraten mapei lotutako Ekintza Plana definitu aurretik.

213/2012 Dekretuaren 11.2 artikulua arabera, zarata-mapak lurretik 4 metrora kalkulatu behar dira. Beraz, eskatutako analisiak gainditu egiten du zarata-mapen edukia. Hala ere, kalitate akustikoko helburuak gainditzeko eremuen gaineko eragina aztertuko da, hurrengo Ekintza Planean lehentasunezko jarduteko eremuak zehazteko.

Horrenbestez, ohar hori ezestea proposatzen da.

Bigarren oharra



INT-RI-2023-0299
CB/egm

Adierazi du zaratarekiko sentikor diren Errenteriako eraikin batzuk beste udalerrri batzuekin lotu direla, eta Errenteriarri udalerrrikoak ez diren beste batzuk esleitu zaizkiola.

Aipatutako eraikinak aztertuta, ohar hori aintzat hartu da eta zaratarekiko sentikor diren aipatutako eraikinen esleipena zuzendu da.

3. Lasarte-Oriako Udala

Lehenengo oharra

N-I errepidearen ondoan dagoen Sasoeta-Zamaburu ikastetxea sartu behar da zaratarekiko sentikor diren azaldutako eraikinen artean.

Egiaztatu da ikastetxe hori zarata-mapetan aztertu dela, baina, egindako kalkuluaren arabera, ez dira iristen adierazitako eraikinetarako ezarritako atalaseetara ($L_d \geq 55$ dBA, $L_e \geq 55$ dBA, $L_n \geq 50$ dBA). Kontuan izan behar da eraikin hori 3 eta 4 metroko altuerako pantailek babesten dutela.

Beraz, ohar hori ezestea proposatzen da.

Bigarren oharra

Adierazten du, 213/2012 Dekretuaren 11.3 artikulua arabera, zarata-mapak aztertu behar duela aurreko Zarata Planaren eraginkortasuna, aurreko Ekintza Planaren neurrien proposamen bati buruz egindako azterketak baliorik ez duela irizita, eta egindako neurrien gainean egin behar dela kontuan hartuta.

Zarata-mapen memoriaren 4.3 atalean, aurreko Ekintza Planaren eraginkortasuna aztertzen da. Lasarteren kasuan, asfaltatze fonoxurgatzailea 452+560 - 453+110 (MD) KPen artean egin da, Zarataren Ekintza Planaren arabera 1. mailako lehentasunekoztat kalifikatuta.

Oraindik ez dira jarri iparraldeko pantailak, 3. mailako lehentasunekoztat jotakoak, kostu/etekin handia dutelako. Hala ere, egokitasunagatik, bi bidezubi birgaitzeko obren barruan 452+170 eta 452+300 KPen arteko errepide zatian pantailak jarri dira (bi ertzetan). Pantaila horiek ez zeuden aurreikusita aurreko Zarataren Ekintza Planaren.

Kalkulu-metodoa aldatuz gero, ezin dira zuzenean alderatu Zarataren Ekintza Planaren jasotako eraginkortasun analisian lortutako emaitzak; beraz, aurrekontuaren betetze maila hartu da adierazletzat. Zarata mapen memoriaren 3.1 atalean, CNOSSOS metodo berria aplikatzean dauden metodologia desberdintasunak azaltzen dira, batez ere ibilgailu motak, zoladura motak, lurraren xurgapena, semaforo eta biribilguneen bidezko zuzenketa eta espaziopeko biztanleriaren zenbaketa kontuan hartuta.

Beraz, ohar hori ezestea proposatzen da.



INT-RI-2023-0299
CB/egm

4. Oiartzungo Udala

Lehenengo oharra

Zaratarekiko sentikor diren azaldutako eraikinen taula zuzentzeko eskatu du, beste udalerrri batzuetako eraikinak agertzen baitira.

Eraikin horien zerrenda berrikusi eta zuzendu da.

Bigarren oharra

Zarata-maparen memoriaren 4.3 ataleko taulan aipatzen den AP-8 errepideko 11 eta 13 KPen arteko errepide zatiari dagokionez, adierazten du gaur egun errepide zati horretako zenbait gunetan pantailak daudela, baina Larrezabaletan zarata handia jasaten duten eraikinak daudela eta ez dela horiek babesteko neurririk aurreikusten, eta, beraz, eremu hori babesteko neurriak hartzeko eskatzen du.

4. 3 ataleko taulak aurreko Ekintza Planaren betetze maila aztertzen du. AP-8 errepideko 11 eta 13 KPen arteko errepide zatirako neurri zuzentzaile gisa aurreikusita zegoen AP-8 errepideko 11+645 eta 12+000 KPen artean pantailak jartzea, 3. mailako lehenetasunarekin, kostu/etekin handia duelako. Taula horretan adierazten den bezala, pantaila hori oraindik ez da egin, eta, beraz, Ekintza Plan berrian sartzeari aztertuko da.

Kontuan hartuta neurri zuzentzaileak hartzea ez dagokiola zarata-mapei, ohar hori ezestea proposatzen da.

5. Olaberriko Udala

Olaberriko Ihurre auzoko eraikinen afekzioak berrikusteko eskatzen du, auzo osoan zehar dauden garajeak kontuan hartuta.

Ohar hori aintzat hartzen da eta zarata-mapak berriro kalkulatu dira, aipatutako beheko solairuan garajeak eraikitzea barne.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

INT-RI-2023-0299_Informe consideraciones_eus.pdf